

Klimatologia: Tenporek eguraldiarekin asmatzen al dute?



IKASLEA: Joseba Iñaki Olaziregi Albizu

TUTOREA: Askoa Ibisate González de Matauco

GRADUA: Geografia eta Lurralde Antolakuntza

IKASTURTEA: 2014-2015

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honek tenporak izan ditu aztergai eta hauek eguraldia asmatzen duten ala ez ziurtatzea izan da burutu beharreko lana. Tenporak epe luzeko iragarpen meteorologikoak dira. Urtean zehar data zehatz batzuetan izaten dira tenporak eta hauek datorren urtaroko eguraldia aurreikusten dute. Lau tenpora daude, urtaro bakoitzerako tenpora bana: udaberriko tenporak, udako tenporak, udazkeneko tenporak eta neguko tenporak. Tenporei ere, urtaro bakoitzeko tenporei, lehenengo tenporak, bigarren tenporak, hirugarren tenporak eta laugarren tenporak bezala ezagutzen zaie. Lehen bi tenporen datak nahiko mugikorak dira, eta beste biak finkoagoak. Tenpora egunak hiru dira: asteazkena, ostirala eta larunbata. Nahiz eta aztertze metodo eta modu ezberdinak egon, orokorrean egun hauetako faktore meteorologikoei eta batez ere, haizearen norabideari, erreparatzen zaie datorren urtaroko eguraldiaren aurreikuspena egiteko.

Gaur egun aurreikuspen hauek plazaratzera ausartzen direnak gutxi dira. Hasteko, aurreikuspenak egiteko urteetako jakinduria beharrezkoa da eta bestetik ez da gai xamurra tenporena. Iragarleetan ezagunenak, Arantzazun bizi den Pello Zabala frailea eta Gorbeako artzaina, Jacinto Sagarna dira. Jacinto Sagarnak jada ez du iragarpenik publikatzen, baina Pello Zabalak oraindik horretan dirau. Oraindik ere, Euskal Herrian jende asko interesatzen da tenporetan, baina badira hauen kontra daudenak ere. Kontra daudenak, iragarpen hauen oinarri zientifiko falta argudiatzen dute baztertze.

Lanaren analisi zientifikoa burutzeko Euskalmeten baliagarri zeuden EAEko behatoki bakoitzaren datuez baliatu naiz. 2001-2014 urte serieko tenperatura, prezipitazio eta hezetasuna izan dira erabilitako aldagai meteorologikoak. EAEko egunkari nagusietan eskuragarri zeuden tenporen iragarpenak alderatu ditut urtaro horretako behatoki guztien aldagai ezberdinen batz bestekoekin. Horrez gain, irudikapen ezberdinak burutu ditut lortutako emaitzekin, hala nola, behatoki guztien, zein hiru aldagaien batz bestekoen irudikapenak. Iragarpen urteko eta iragarpenari zegokion urtaroko irudikapenak ere burutu ditut.

Eskuratutako tenporen hamaika iragarpenetatik bostek asmatzen dute, lauk erdizka asmatzen dute eta bik ez dute asmatzen. Erdizka daudenak ezezkotzat hartuz gero, sei izango lirarteke asmatzen ez dutenak eta bost asmatzen dutenak. Beraz, esan daiteke

tenporak orokorrean ez direla fidagarriak, iragarpenen erdia baina gehiagok ez baitute asmatzen.

Amaitzeko, esan beharra dago tenporek fidagarritasuna eta jarraitzaileak galtzen ari direla, generazio berriak datu zientifikoetan oinarritzen baitira eguraldiaren berri izateko. Hala eta guztiz ere, aipatu behar da, epe luzeko iragarpenak ez direla batere fidagarriak, eguraldia oso aldakorra baita, are eta gehiago gure eremu geografikoan.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	1
2.	BASE KONTZEPTUALAK	2
2.1.	Tenporen definizioa	2
2.2.	Noiz ematen dira	4
2.3.	Antzeko iragarpenak (<i>Cabañuelas</i>).....	4
2.4.	Adierazleak	6
2.5.	Herriaren jakituria vs teknologia.....	8
3.	LANAREN METODOLOGIA	9
4.	DATUEN ANALISIA ETA KONPARAKETA	15
5.	DATUEN IRUDIKAPENA ETA KOMENTARIOA.....	31
6.	ONDORIOAK.....	43
7.	BIBLIOGRAFIA	45
8.	ERREFERENTZIAK	46
9.	ERANSKINAK: IRAGARPENAK EGUNKARIETAN	48

1. SARRERA

Lanaren helburu nagusia tenporen iragarpenek eguraldiarekin asmatzen ahal duten aztertzea da, horretarako ikerketa lan bat burutuz, ahalik eta emaitza zehatzenak lortzeko. Tenporek egindako iragarpenak behatokitian neurtutako aldagai desberdinekin alderatu dira. Aldagai hauek prezipitazioa, temperatura eta hezetasuna izan dira.

Tenporek polemika sortu izan du betidanik hauen sinesgarritasunaren inguruan. Alde batetik, tenporengan sinesten dutenak daude, hauen iragarpenek jarraitzaile dezente dituzte Euskal Herrian. Hori bai, jarraitzaile hauen artean gazte gutxi aurkitzen direla esan daiteke. Beste alde batetik, inongo oinarri zientifikorik ez duten, eta beraz, sinesgarritasunik ez duten aurreikuspen soilak besterik ez direla diotenak daude. Hortaz, hau aipaturik, tenporen fidagarritasuna ezeztatzeko edo onartzeko burutu dut ondorengo lana.

Tenporekiko jakin mina izan dut beti eta hori izan da Gradu Amaierako Lan hau aukeratzeko arrazoi nagusienetako bat. Meteorologia orokorrean interesatzen bazait ere, tenporek duten misterio puntu hori eta hauen jakinduria bereziki erakargarria iruditzen zait.

Lana ondorengo ataletan banatua dago. Lehenik eta behin, lanaren metodologia azaldu dut, gaiaren nondik norakoak eta arazo ezberdinak aipatuz. Bigarrenik, tenporen arlo teorikoari edo bere azalpenari heldu diot, tenporak zein antzeko beste iragarpen batzuk azalduz. Ondoren, Euskalmeteko datuen interpretazio bat egin dut, tenporen iragarpenekin lotuta. Jarraian, ondorio batzuk azaldu ditut emaitzen arabera eta azkenik, lana burutzeko erabili ditudan bibliografia eta erreferentziak azaldu ditut.

2. BASE KONTZEPTUALAK

2.1. Tenporen definizioa

Tenpora hitza jatorriz latinezko *tempus* hitzetik dator, “denbora” euskaraz hain zuzen ere. Pluralean *tempora* idazten da, euskaraz “denborak” edo gaztelaniaz “tiempos” esanahiarekin. Tenporak eguraldiaren epe luzeko iragarpenak dira, zehatzagoak izanez hiruhileko edo urtaroko aurreikuspenak dira. Urtaro bakoitzaren amaieran izaten dira hurrengo urtaroaren iragarpen egunak edo tenpora egunak (TOHARIA, 2013). Tenporak iragartzerako orduan bi metodo nagusi daudela esan daiteke. Lehenak haizean oinarritzen dira eta besteak tenpora egun bakoitzaren behaketan oinarritzen dira¹.

Tenporak edo garta-denborak hiru hilabeteko aurreikuspen meteorologikoak dira eta urtean lau aldiz iragartzen dira. Iragarpen meteorologikoak aspalditik burutzen dira eta eguraldiaren iragarpen hauek beti egon dira gizakiaren ahotan, emango zen eguraldiak uztarako zuen garrantzia zela eta. Tenporetan izozteak iragartzen baziren, mahats-bilketa aurreratu egiten zen produkzioa ez galtzeko, adibidez (TOHARIA, 2013). Lehen aipamenak ziurrenik giza talde ehiztari, arrantzale edo nekazariak egingo zituzten, baina hau ez dago inon frogatzerik ez baitago garaiko idatzirik². Eguraldia beti izan da gizakiaren buruan eta nekazaritzarako edo beste jarduera batzuetarako iragartzen saiatu izan dira. Iragarpen hauek garatzen joan dira denbora igaro ahala.

Kristo aurretik duela 2000 urte gutxi gorabehera Babilonioek burutu zituzten lehen iragarpen idatziak. Horretarako planeten mugimenduetan, zeruaren itxuran edota fenomeno optikoetan oinarritu ziren (ERICKSON, 1991). Orduz geroztik greziarrak, erromatarrak eta bestelako zibilizazioak beraien iragarpenak egiten joan ziren gaur egun arte iraunez³.

Tenporak oso lotuak agertzen zaizkigu kristautasunarekin. Tenporen lehen aipamenak Erromako elizan burutu ziren, eta hortik Europako beste elizetara zabalduz joan ziren. XI. menderako zabalduak zeuden Espainian ospakizun hauek. Tenporak eliza katolikoak Erdi Aroa geroztik ezartzen zituen barau denborak ziren. Barau denboran

¹ ANDECO, Jorge. “Las Témperas”. jorge.andeco@gmail.com. Helbidea: <http://molloportolin.blogspot.com.es/2012/11/las-temporas.html> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

² LA ROCCA, Silvia. “Algunas curiosidades sobre la historia de la meteorología”. Helbidea: http://www.tutiempo.net/silvia_larocca/Temas/Historia.htm (Azken kontsulta: 2015-06-19)


³ LA ROCCA, Silvia. “Algunas curiosidades sobre la historia de la meteorología”. Helbidea: http://www.tutiempo.net/silvia_larocca/Temas/Historia.htm (Azken kontsulta: 2015-06-19)

ezartzen ziren egunak urtaro bakoitzaren hasierako egunak ziren, hau da, urtaro bakoitzaren lehen asteazkena, ostirala eta larunbata⁴.

Ondorioz, euskaraz ere finkatu ziren iragarpen egun hauek eta iragarpen egunei *hilegunak* edo *igarregunak* deitu zitzaien. Hilegunak terminoa, penintsularen hegoaldean ematen diren tenporen antzeko iragarpenekin, Cabañuelekin, lotzen dituzte eta igarregunak Euskal Herriko iragarpenekin, non hauek, urtearen lehen 12 egunetan oinarritzen diren urte guztiko iragarpena egiteko. Urtarrileko lehen eguneko eguraldiak lehen hilabeteko eguraldia adieraziko du, urtarrileko bigarren egunak otsaileko eguraldia adieraziko du,... eta horrela hamabi egunetan (ZABALA, 2009).

Aski ezagunak dira Euskal Herrian tenporen iragarle batzuk. Batzuk besteak baina ezagunagoak dira, baina denek dute beraien ospea eta garrantzia sorterrian. Esan daiteke, bakoitzak bere inguruko iragarpenak egiten dituela, ezagutzen duten esparruaren ezaugarrietan sakonduz. Hala nola, Arantzazuko Fraile den Pello Zabala, Gorbeiaiko Jacinto Sagarna artzaina, Aralarreko Joxe Mari Zabaleta artzaina, etab.

Irudia 1: Euskal Herriko eguraldiaren iragarle ospetsuenak.



Iturria: "Eguraldia. Euskaldunen herri-jakinduriatik meteorologi ikerkuntza" liburua.

⁴ GONZALEZ FUENTE, Antolín. "Témporas de acción de gracias y de petición". Helbidea: <http://www.serviciocatolico.com/files/temporas.htm> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

2.2. Noiz ematen dira

Lau tenporak edo “cuatro temporas” hitza urteko lau estazioekin dago lotua, eta “ayuno” edo barau egunetan iragartzen ziren tenporak. Urtean, beraz, estazio bakoitzeko iragarpen bat egiten da eta iragarpen egunak asteazkena, ostirala eta larunbata izaten dira. Beraz, udaberriko, udako, udazkeneko eta neguko tenporak izango ditugu urtero. Udaberriko tenporak garizumaren bigarren astean izan ohi dira. Udakoak, Mendekostetik lehenengo astera edo Mendekostetik zortzi egunetara dira. Udazkenekoak, irailean izan ohi dira, irailaren 14tik hurrengo asteazkenean hasita. Azkenik, neguko tenporak, abenduaren 13tik hurrengo asteazkenean hasiko lirateke. Irailaren 14a edo abenduaren 13a asteazkena bada, hurrengo asterako uzten dira.

Udako eta udaberriko garta-denborak mugikorak dira, Pazkoko ilargi betearen inguruan mugitzen direlako. Beste biak data finkoagoak dituzte. Ipar Euskal Herrian sei egun aztertzen dira, hiru beharrea. Asteazkenetik hasi eta datorren hasteko astelehenerarte luzatzen dira (ABRISKETA, *et. al.*, 2001).

2.3. Antzeko iragarpenak (*Cabañuelas*)

Tenporak gaur egun Iberiar penintsulako eremu txikietan bakarrik iragartzen dira. Eremu hauek Espainia iparraldean kokatuko genituzke, Kantabria, Galizia, Palentzian⁵, Burgosen eta Euskal Herrian gehienbat⁶.

Penintsulan ezagunak diren beste iragarpen meteorologikoak “*Cabañuelas*” izenez ezagutzen direnak dira. Hauek Espainiaren hegoaldean eta Hego Amerikan dira ezagunenak eta tenporekin antzekotasun batzuk badituzte. Bietan elementu berdinei edo antzekoei antzemateen diete iragarpenak egiteko. Elementu hauek meteorologikoak dira: haizearen norabidea, prezipitazioa, tenperatura, hezetasuna, ilargia etab. *Cabañuelak* hamabi egun jarrietan egiten duen eguraldiaren analisisian oinarritzen dira. Udaren erdian edo abenduan ospa daitezke egun hauek, eta hamabi egun hauek hurrengo hilabeteetan korrelatiboki egingo duen eguraldia zehaztuko dute. Espainian eta Europan ere Tenporak baino garatagoak aurkitzen dira hauek eta leku bakoitzean bere izenez ezagutzen dira. Gaztelaniaz *cabanillas*, *cabichuelas*, *caniculares*, *calandrias*,...

⁵ GONZALEZ, Cesar. “Las t mporas: una tradici n centenaria”. Helbidea: <http://rumbonortepalentino.com/las-temporas-una-tradicion-centenaria/> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

⁶ TIEMPO: “Entrevista a Pello Zabala” <http://www.tiempo.com/ram/4650/entrevista-a-pello-zabala/> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

bezala ere ezagutzen dira; katalaneraz *cabanelles*, *tretzenades*,...; ingelesez *The twelve nights*; etab. Hego Amerikako *Cabañuelek* iragarpena egiteko erabiltzen duten hilabetea urtarrila da.

Gehien erabiltzen diren metodoak hauek dira (TOHARIA, 2013):

1. Urteko lehen hamabi egunak:

Lehen eguna urtarrilari legokioke eta horrela elkarren segidan. Iragarpena egiteko orduan, egun argiz dagoen eguraldia hartzen da kontutan soilik, ez ilundutakoan. Metodo hau asko erabiltzen da Aragoi, Gaztelako zenbait lekutan eta Hego Amerikan.

2. Abuztuko lehen hamabi egunak:

Abuztuaren 1a urtarrilari legokioke eta horrela elkarren segidan. Hau da gehien erabiltzen den metodoa Iberiar penintsulako erdi eta hegoaldean. Hauei *cabañuela* zuzenak edo *maestras* deritze.

3. Itzuleko *Cabañuelak*:

Hauek abuztuaren 13an hasiko lirateke, eta hauek aurrekoekin alderatuz guztiz alderantziz funtzionatzen dute. Hilaren 13a abenduari legokioke, hilaren 14a azarori, eta horrela elkarren segidan.

4. Gabonetako eta Santa Luziko *Cabañuelak*:

Hemen iragarpen egunak Santa Luzi egunetik, abenduaren 13tik, hilaren 24ra luzatzen dira. Abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra kontrako zikloa hartzen da. Hauek nahasiagoak dira azaltzen, aditu bakoitzak bere teoriak ateratzen baititu.

5. Urriko ilargiko *Cabañuelak*:

Cabañuela hauek bestetik ezberdinak dira, egun bateko iragarpena ez baitute hilabete batera luzatzen. Bertan urriko ilargiari erreparatu behar zaio eta jarraian doazen hilabetei aplikatu.

6. Indiako eta Babiloniako *Cabañuelak*:

Rig Vedá liburu sakratuan idatzi batek datorren urteko eguraldiaren iragarpena egiten du neguaren erdiko hamabi egunetan oinarrituz.

Babilonioek, zortearen festa ospatzen zutenean sartu berri ziren urteko eguraldiaren iragarpena egiten zuten.

2.4. Adierazleak

Orokorrean inguru guztietan antzeko aldagaiei erreparatzen zaie tenporen iragarpena egiteko. Aldagai nagusiak, beraz, haizea, temperatura eta prezipitazioa izango dira. Ondorioz, haizeari dagokionez oso garrantzitsua izango da haizeak iragarpen egun horietan duen norabidea zehaztea. Temperatura eta prezipitazioa neurtu daitezkeen aldagaiak dira, hala nola, airearen hezetasuna eta haizearen norabidea ere garrantzitsuak izango dira ebaluazio orokor bat egiteko. Hodeien, eguzkiaren, ilargiaren edota izarren itxuran begiratzea ere kontuan izateko faktoreak izango dira. Hodeiak modu ezberdinetakoak izan daitezke, bero hodeiak, behe lainoak, laino lentikularrak, ... eta bakoitzak egoera klimatiko ezberdinei erantzuten diete⁷. Ilargia ere faktore garrantzitsua da, batzuen esanetan ematen ari den fenomeno meteorologikoaren intentsitatea areagotzeko gai da.⁸ Pello Zabalak⁹ aipatzen du Ilargi beteak beti adierazten duela zerbait, normalean euria edo eguraldi aldaketa egoten baita honekin (FORD, 1982).

Faktore nagusia haizea dela jo daiteke, eta beraz, tenporen iragarpen egunetan zein haize nagusitzen den ikuskatzea ezinbestekoa bilakatzen da. Bi iragarpen metodo aurkitzen dira.

- Lehena, iragarpen egunetan nagusitu den haizearen norabidean sustatzen da. Nagusitu den haize hori izango da datorren urtaroan gehien nabarmenduko den haizea. Prezipitazio gutxi izan bada, urtaro lehorra izango da eta temperaturak ere joera berdina jarraituko dute, beti ere urtaro bakoitzari dagokion tenperaturen barruan.

⁷ METEOLOT: “Tipos de nubes”. Helbidea: <http://www.meteolot.com/enciclopedia-meteorologica.html>. (Azken kontsulta: 2015-06-19)

⁸ TIEMPO: “La Luna y su influencia sobre el tiempo atmosférico: nuevas ideas y estudios” Helbidea: <http://www.tiempo.com/ram/14630/la-luna-y-su-influencia-sobre-el-tiempo-atmosferico-nuevas-ideas-y-estudios/> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

⁹ EL CORREO: <http://www.elcorreo.com/vizcaya/20080401/pvasco-espana/vendra-nieve-abril-20080401.html> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

- Bigarren iragarpen metodoa, tenporen egun bakoitzaren azterketan oinarritzen da. Hurrengo urtaroaren hilabete bakoitzak tenporen egun bakoitzeko eguraldiaren antzekoa jasango du, hurrenez hurren. Iragarpen egunak hiru direnez, egun bakoitzean nagusitu den haizeak ondorengo hilabete bakoitzean nagusituko da. Hau da, tenporen lehen egunean hego haizea bada, lehen hilabeteko eguraldia epela eta nahiko ona izango da, hego haizea nagusituko delako. Beste iragarpen metodoa hiru egunetan nagusitzen den haizean oinarritzen da datorren urtaroon nagusituko den haizea iragartzeko, eta azken honek, aldiz, iragarpen egun bakoitza hilabete batekin erlazionatzen ditu. Lehen iragarpen eguneko haizea datorren urtaroko lehen hilabetean emango da eta horrela hurrenez hurren.

Iragarpen hauek burutzeko animalien edo izaki bizidunen portaeran ere begiratu behar da. Horrela dio ZABALAK (2009), non Euskal Herrian mantentzen diren esaera zaharrak aipatzen dituen bertan:

- *“Karraztarroa zuhaitz goian, eguraldi ona”.*
- *“Antzarrak pasatu, negua etorri”.*
- *“Euliak pikante badauz, denpora txarra”.*

Beste herrialde batzuetan ere animalien sineskeriak mantentzen dira eta hauetan ezagunena Amerikako Estatu Batuetako marmotaren eguna da. Otsailaren 2an ospatzen da, Candelariaren egun kristauan. Sineskeria honen arabera marmotak egun horretan bere itzala ikusten badu beldurtu eta berriro gordelekura sartuko da beste sei asteetan hibernatzera. Badauka bere azalpena fenomeno honek. Marmota ateratzen denean, eguzkiak indar handiz distira egiten duenean aire masa polar batez lagundua dagoelako da, negua luzatuz. Presio altuko egoera klimatiko bat dagoelako iparraldeko aire masa hotzak kokatzen dira kontinentearen gainean. Aldiz, eguna lainotua badago eta marmotak bere itzala ikusten ez badu kondizio klimatiko hobetuen edo epelagoen etorrera adierazi nahi du. Honekin ez da ziurtatu nahi beti betetzen denik gertaera hau (ERICKSON, 1991).

2.5. Herriaren jakitura vs teknologia

Jakina da gure artean tenporen iragarpenek polemika sustatzen dutela askorengan. Kritikoak direnak oinarri zientifiko nabarmen bat falta zaiola argudiatzen dute.

Gaur egun eguraldiaren iragarpena burutzeko erreminta asko ditugu eskuragai. Iragarpen hauek epe motzean, egun batzuetarako iragarpenak burutzerako orduan, ziurtasun handia dute. Tenporen iragarpenak, aldiz, epe luzekoak dira eta herriaren jakinduria edo “*sabiduría popular*” baten ondorio direla esan daiteke. Bateragarriak al dira? Pello Zabalaren elkarrizketa batean¹⁰ honi buruz galdetzen diote eta honela dio: “*Que son complementarios. Que no se excluyen. Que se fijan en dos direcciones distintas, si bien no contrarias: unas a largo plazo y el otro a corto plazo*”. Aritu askoren ustez ordea iragarpen hauek balore historikoa besterik ez dute, eta gaur egun ez zaiela garrantzirik eman diote. Garrantzia handiagoa izateko hauen iragarpenak zehatzagoak izan beharko lirakeela esaten dute gaur egungo zientifiko eta meteorologo askok.

Euskal herriaren kasuan eguraldiaren epe luzerako iragarpena egitea oso zaila da, dituen ezaugarri geografikoengatik: kokapen geografikoa, Kantauri itsasoaren ondoan kokatzea, Pirinioekiko gertutasuna eta bere orografia maldatsua (RUIZ, 1998). Honek guztiek eragina dute gure kliman eta asko baldintzatzen du iragarpenak egiterako orduan. Sortu daitezkeen bat-bateko fenomeno meteorologikoak, hala nola, ekaitzak, brisak, etab. maiz ematen dira gure inguruan iragarpena zailduz.

¹⁰ TIEMPO: “Entrevista a Pello Zabala” <http://www.tiempo.com/ram/4650/entrevista-a-pello-zabala/> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

3. LANAREN METODOLOGIA

Aipatu behar dut, tenporen iragarpen seriea 2004-2014 urte bitarteetako iragarpenak direla. Datuen seriea aldiz, 2001-2014 urte bitartekoa da. Baina urte hauetako iragarpen denak aurkitzea ez da posible izan eta ondorioz eskuratu ahal izan ditudan iragarpenekin egin ahal izan dut tenporen frogapena. Eskuratutako iragarpenak 2004ko udakoak eta udazkenekoak, 2005eko udakoak, 2006ko udakoak, 2007ko udakoak, 2008ko udakoak, 2011ko negukoak, 2012ko negukoak, 2013ko udaberrikoak, 2013ko udakoak eta 2014ko udaberrikoak izan dira.

Lehen tenporak udaberriko tenporei deitzen zaie, bigarren tenporak udakoei, hirugarrenak udazkenekoei eta laugarrenak negukoei. Nik, aldiz, lehen zenbakia neguko tenporei emana diet, bigarrena udaberrikoei, hirugarrena udakoei eta laugarrena udazkenekoei. Urtaroak banatzerako orduan banaketa hau egin dut, lau hilabetek urtaro ezberdinak partekatzen dituztelako. Adibidez, 2015eko uda ekainaren 21ean hasten da eta hortaz, udaberri eta udako urtaroak hartzen ditu hilabete honek. Kontuan izanda ekaineko 20 egun udaberrian sartzen direla eta udan 10 soilik, ekaina udaberriko urtaroan kokatzea erabaki dut. Neguko urtaroaren kasuan, 2015eko negua, 2014ko abenduaren amaieran hasten da eta goran aipatutako irizpideari jarraiki neguko hilabeteak urtarrila, otsaila eta martxoa dira. Horregatik ezarri dut neguko urtaroa lehen urtaro bezala.

Tenporen iragarpen egunak lortzeko modu bat “calendario zaragozano” liburuxka kontsultatzea da. Urtero ateratzen da liburuxka berria iragarpen egunekin. Horrela, urte bakoitzeko urtaro bakoitzeko iragarpen egun hauek lortu ditut. **2004**ko udaberriko tenporak martxoaren 3, 5 eta 6 ziren; udakoak ekainaren 2, 4 eta 6an; udazkenekoak irailaren 15, 17 eta 18an eta negukoak abenduak 15, 17 eta 18an. **2005**eko udaberriko tenpora egunak otsailaren 16, 18 eta 19 izan ziren; udakoak maiatzaren 18, 20 eta 21ean; udazkenekoak irailaren 21, 23 eta 24ean eta negukoak abenduaren 14, 16 eta 17an. **2006**ko udaberriko tenporak martxoaren 8, 10 eta 11 izan ziren; udakoak ekainaren 7, 9 eta 10ean; udazkenekoak irailaren 20, 22 eta 23an eta negukoak abenduaren 20, 22 eta 23an. **2007**ko udaberrikoak otsailaren 28, martxoaren 2 eta 3an izan ziren; udakoak maiatzaren 30 eta ekainaren 1 eta 2an; udazkenekoak irailaren 19, 21 eta 22an eta negukoak abenduaren 19, 21 eta 22an. **2008**ko udaberriko tenporak otsailaren 13, 15 eta 16an izan ziren; udakoak maiatzaren 14, 16 eta 17an;

udazkenekoak irailaren 17, 19 eta 20an eta negukoak abenduaren 17, 19 eta 20an. **2009**ko udaberrikoak martxoaren 4, 6 eta 7an; udakoak ekainaren 3, 5 eta 6an; udazkenekoak irailaren 16, 18 eta 19an eta negukoak abenduaren 16, 18 eta 19an. **2010**eko udaberrikoak otsailaren 24, 26 eta 27an izan ziren; udakoak maiatzaren 26, 28 eta 29an; udazkenekoak irailaren 15, 17 eta 18an eta negukoak abenduaren 15, 17 eta 18an. **2011**ko udaberrikoak martxoaren 16, 18 eta 19an; udakoak ekainaren 15, 17 eta 18an; udazkenekoak irailaren 19, 21 eta 22an eta negukoak abenduaren 14, 16 eta 17an. **2012**ko udaberrikoak otsailaren 29 eta martxoaren 2 eta 3an; udakoak maiatzaren 30 eta ekainaren 1 eta 2an; udazkenekoak irailaren 19, 21 eta 22an eta negukoak abenduaren 19, 21 eta 22an. **2013**ko udaberrikoak otsailaren 20, 21 eta 22an; udakoak maiatzaren 22, 24 eta 25ean; udazkenekoak irailaren 18, 20 eta 21ean eta negukoak abenduaren 18, 20 eta 21ean. Azkenik, **2014**ko udaberriko tenporen iragarpenak martxoaren 12, 14 eta 15ean izan ziren; udakoak ekainaren 11, 13 eta 14an; udazkenekoak irailaren 17, 19 eta 20an eta negukoak abenduaren 17, 19 eta 20an.

Egun hauen iragarpenak bilatzea beste gauza bat da. Informazio biltzeko Diario Vasco egunkaria, El Correo egunkaria eta webgune ezberdinak erabili ditut. Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian, Diario Vasco-ko kontsulta digitala egitea dago eta horren bitartez iragarpen batzuk eskuratu ahal izan nituen. Beste iragarpenak Internet bidez lortutakoak dira. Aipatu behar da, iragarpen asko ez ditudala lortu, iragarpenak argitaratu ez zirelako edo hauek lortzea ezinezkoa izan delako. Tenpora iragarpenen hurrenezko astelehenean argitaratu ohi ziren iragarpenak, baina urte askotan ez da inongo iragarpenik agertzen. Diario Vasco-ko edota Pello Zabalarekin harremanetan jarri nintzen informazio zabalagoa izateko, baina ez dut erantzun positiborik izan. Bestalde analisisa burutzeko haizea faktore oso garrantzitsua izango zen, baina ezinezkoa izan da burutzea. Eskuratu ahal izan ditudan tenporen iragarpenak hauek dira:

Taula 1: Tenporen iragarpenak.

2004	IRAGARPENA
Udaberrikoak: martxoak 3, 5 eta 6	Ez da aurkitu.
Udakoak: ekainak 2, 4 eta 5	Verano sano y sin excesivo calor. ¹¹
Udazkenekoak: irailak 15, 17 eta 18	Buen tiempo y no lloverá mucho. ¹²
Negukoak: abenduak 15, 17 eta 18	Ez da aurkitu.

¹¹ Diario Vasco, 2004ko ekainaren 7a, or. 10.

¹² Diario Vasco, 2004ko irailaren 20a, or. 9.

2005	IRAGARPENA
Udaberrikoak: otsailak 16, 18 eta 19	Ez da aurkitu.
Udakoak: maiatzak 18, 20 eta 21	Poco caluroso y ausencia de precipitaciones. ¹³
Udazkenekoak: irailak 21, 23 eta 24	Ez da aurkitu.
Negukoak: abenduak 14, 16 eta 17	Ez da aurkitu.
2006	IRAGARPENA
Udaberrikoak: martxoak 8, 10 eta 11	Ez da aurkitu.
Udakoak: ekainak 7, 9 eta 10	Verano sano, al principio seco con algunas tormentas. ¹⁴
Udazkenekoak: irailak 20, 22 eta 23	Ez da aurkitu.
Negukoak: abenduak 20, 22 eta 23	Ez da aurkitu.
2007	IRAGARPENA
Udaberrikoak: otsailak 28, martxoak 2 eta 3	Ez da aurkitu.
Udakoak: maiatzak 30, ekainak 1 eta 2	Algunas tormentas y para el final calor sano. ¹⁵
Udazkenekoak: irailak 19, 21 eta 22	Ez da aurkitu.
Negukoak: abenduak 19, 21 eta 22	Ez da aurkitu.
2008	IRAGARPENA
Udaberrikoak: otsailak 13, 15 eta 16	Ez da aurkitu.
Udakoak: maiatzak 14, 16 eta 17	Temperaturas suaves y agua. ¹⁶
Udazkenekoak: irailak 17, 19 eta 20	Ez da aurkitu.
Negukoak: abenduak 17, 19 eta 20	Ez da aurkitu.
2009	IRAGARPENA
Udaberrikoak: martxoak 4, 6 eta 7	Ez da aurkitu.
Udakoak: ekainak 3, 5 eta 6	Ez da aurkitu.
Udazkenekoak: irailak 16, 18 eta 19	Ez da aurkitu.
Negukoak: abenduak 16, 18 eta 19	Ez da aurkitu.
2010	IRAGARPENA
Udaberrikoak: otsailak 24, 26 eta 27	Ez da aurkitu.
Udakoak: maiatzak 26, 28 eta 29	Ez da aurkitu.
Udazkenekoak: irailak 15, 17 eta 18	Ez da aurkitu.
Negukoak: abenduak 15, 17 eta 18	Ez da aurkitu.

¹³ Diario Vasco, 2005eko ekainaren 23a, or. 7.

¹⁴ El Correo: http://www.elcorreo.com/vizcaya/pg060624/prensa/noticias/Portada_VIZ/200606/24/VIZ-ACT-327.html (Azken kontsulta: 2015-06-19)

¹⁵ Diario Vasco, 2007ko ekainaren 21a. http://www.diariovasco.com/prensa/20070621/aldia/americanos-anuncian-verano-suave_20070621.html (Azken kontsulta: 2015-06-19)

¹⁶ Diario Vasco, 2008ko ekainaren 21a. <http://www.diariovasco.com/20080621/al-dia-local/predicciones-largo-plazo-para-20080621.html> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

2011	IRAGARPENA
Udaberrikoak: martxoak 16, 18 eta 19	Ez da aurkitu.
Udakoak: ekainak 15, 17 eta 18	Ez da aurkitu.
Udazkenekoak: irailak 21, 23 eta 24	Ez da aurkitu.
Negukoak: abenduak 14, 16 eta 17	Lluvia abundante. ¹⁷
2012	IRAGARPENA
Udaberrikoak: otsailak 29, martxoak 2 eta 3	Ez da aurkitu.
Udakoak: maiatzak 30, ekainak 1 eta 2	Ez da aurkitu.
Udazkenekoak: irailak 19, 21 eta 22	Ez da aurkitu.
Negukoak: abenduak 19, 21 eta 22	No parece que sea fría. Poca lluvia. ¹⁸
2013	IRAGARPENA
Udaberrikoak: otsailak 20, 21 eta 22	Primavera suave. ¹⁹
Udakoak: maiatzak 22, 24 eta 25	Verano no tan malo. ²⁰
Udazkenekoak: irailak 18, 20 eta 21	Ez da aurkitu.
Negukoak: abenduak 18, 20 eta 21	Ez da aurkitu.
2014	IRAGARPENA
Udaberrikoak: martxoak 12, 14 eta 15	Típico de primavera. ²¹
Udakoak: ekainak 11, 13 eta 14	Ez da aurkitu.
Udazkenekoak: irailak 17, 19 eta 20	Ez da aurkitu.
Negukoak: abenduak 17, 19 eta 20	Ez da aurkitu.

Iturria: Elaborazio propioa.

Landu beharreko iragarpenak beraz, 11 izango dira. 11 aurreikuspen hauek honako urte eta urtaroak hartzen dituzte:

- 2004ko udakoak → Sanoa eta bero handirik gabekoa.
- 2004ko udazkenekoak → Eguraldi on eta euri gutxikoa.
- 2005eko udakoak → Bero gutxikoa eta prezipitazio falta.
- 2006ko udakoak → Sanoa, hasieran lehorra eta gero ekaitzak.

¹⁷ EITB: <http://www.eitb.tv/es/radio/radio-vitoria/ici/911060/793451/las-temporas-segun-peio-zabala/> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

¹⁸ EITB: <http://www.eitb.tv/es/radio/radio-vitoria/ici/911060/793451/las-temporas-segun-peio-zabala/> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

¹⁹ EITB: <http://www.eitb.eus/es/videos/detalle/1272514/video-pello-zabala-preve-primavera-sera-calmada--eguraldia/> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

²⁰ EITB: <http://www.eitb.eus/es/videos/detalle/1356926/video-pello-zabala-preve-verano-soleado/> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

²¹ EITB: <http://www.eitb.eus/es/audios/detalle/2129036/pello-zabala-entrevista-tiempo-meteorologia-radio-vitoria/> (Azken kontsulta: 2015-06-19)

- 2007ko udakoak → Ekaitz batzuk hasieran eta uda sanoa.
- 2008ko udakoak → Temperatura suabeak eta euritsua.
- 2011ko negukoak²² → Euritsua.
- 2012ko negukoak²³ → Hotza ez eta euri gutxi.
- 2013ko udaberrikoak → Udaberri suabea.
- 2013ko udakoak → Ona.
- 2014ko udaberrikoak → Ohiko udaberria.

Behatoki bakoitzeko pilatutako prezipitazioa, bataz besteko temperatura eta eguneko batez besteko hezetasuna dira. Euskalmeten 2001-2014 urte seriea dago eskuragarri eta horren bidez baliatu naiz taulak osatzeko. Azaltzen diren datuen artean, behatoki bakoitzeko bataz besteko temperatura, bataz besteko prezipitazioa eta bataz besteko hezetasuna hartu ditut. Urte bakoitzeko datuak azaltzen dira, behatoki bakoitza hamabi hilabeteetan banatuta. Beraz, urte bakoitzeko temperatura, prezipitazioa eta hezetasuna pilatu ditut Excel batean, eta horrela behar diren bataz bestekoak lortu.

Parametro meteorologiko bakoitzari metodologia berdina aplikatu diot behar diren datuak lortzeko. Prezipitazioaren parametroa azaltzeko, adibidez, Euskalmeteko datuak Excelera esportatu ditut. Datuak urteko deskarga daitezke eta, beraz, lehen urtea 2001ekoa izan da. Urte bakoitzaren barnean, behatoki guztiak agertzen dira goitik behera lerrokatuak. Behatoki bakoitzaren parean, hamabi zutabeetan hain zuzen, hilabete bakoitzeko bataz besteko prezipitazioa ematen da. Lehenik, behatoki bakoitzaren hamabi hilabeteak, lau zutabetara pasa ditut, hau da, lau urtaroetara. Urtaro bakoitzak hiruna hilabeteko datuak barneratuko ditu²⁴. Jarraian, 2001eko behatoki

²² Kasu honetan neguko aurreikuspena izanik, eta lehen aipatu moduan, iragartzeen dituen hilabeteak 2012ko urtarrila, otsaila eta martxoa direnez, taulan kontuan izan beharreko datuak 2012ko negukoak izango dira eta ez 2011ko negukoak.

²³ 2011ko kasu berbera da. 2013ko urtarrila, otsaila eta martxoko datuetan erreparatu dut konparazioa egiteko.

²⁴ Prezipitazioaren kasuan, hamabi hilabeteko datuak urtaroetara laburbiltzerako orduan, hilabeteko prezipitazioa gehitu egin dut. Temperatura eta hezetasunarekin, urtaroetako datua finkatzeko gehitu beharrez hiru hilabeteen bataz bestekoa atera dut.

guztien urtaro bakoitzeko bataz bestekoa atera dut, Exceleko *promedio* eragiketa erabiliz. Horrela 2001eko behatoki guztien lau urtaroen bataz bestekoa kalkulatu dut. Gauza berdina egin dut urte guztiekin, eta behin urte bakoitzeko urtaro bakoitzaren bataz bestekoak izanda, urte serie osoaren (2001-2014) bataz bestekoa atera dut. Modu horretan, serieko lau urtaroen bataz bestekoa lortu dut.

Eragiketa hauen bitartez lortu ditut tenporen iragarpenak egiteko beharrezko datuak. Batetik, urte bakoitzaren lau urtaroen bataz bestekoak ditut eta bestetik, 2001-2014 serieko urtaro bakoitzaren bataz bestekoak. Konparaketa edo egiaztapena egiteko, beraz, iragarpena egin den urtaroko datuak eta serieko urtaroko datuak begiratu ditut. Adibidez, 2004ko udako tenporen iragarpenak uda lehorra iragarri bazuten, 2004ko udako prezipitazioa begiratu dut eta ondoren serieko (2001-2014) udako bataz bestekoa. 2004ko udako prezipitazioa, serieko udako bataz bestekoa baino baxuagoa bada, iragarpenak asmatu duela ondorioztatu dut. Gauza berbera gin dut, beste bi parametro meteorologikoekin.

Baita ere, lanaren barruan, behatokien urtaro bakoitzeko bataz bestekoak eta tenporen iragarpenak aztertuz irudikapen grafiko bat egin behar da. Hori burutzeko, ezinbestekoa izan da QGIS programa informatikoa. Beharrezko datuak, behatoki bakoitzaren 2001-2014 urte serieko lau urtaroen eta parametro meteorologiko bakoitzaren bataz besteko datuak eta behatoki bakoitzaren kokapen geografikoa izango dira. Kokapen geografikoaren bitartez behatoki bakoitzaren datuak irudikatu ahalko dira EAeko mapan.

4. DATUEN ANALISIA ETA KONPARAKETA

Zati honetan, estazioetatik bildutako datuekin eta tenporen iragarpenekin konparazio lan bat egin dut, ea iragarpen hauek eta estazioetako datuek diotenak bat egiten duten.

Lehenik eta behin, tenporen iragarpenak analizatuko ditut, aipatzen dutena ahalik eta modu zehatzenean interpretatzeko. Aipatu behar dut, gaur egun ez dagoela iragarpen hauek interpretatzeko inongo metodorik. **Uda sanoa** terminoa behin baino gehiagotan agertzen da eta hau hezetasunarekin lotu dut, ohikoa baino hezetasun handiagorik ez dagoela, alegia. Uda sanoa terminoa bero sanoa hitzarekin elkartu dut, lana burutzeko informazioa baliatu ahal izateko. Erabiltzen den beste termino bat, **temperatura suabea** da, hau da, muturreko tenperaturarik ez dela egon urtaroan. **Ekaitzak** aipatzen direnean, prezipitazioari begiratu diot, ekaitzak ez badaude ohiko prezipitazioa baino baxuagoa izango baita. Azaldu beharreko beste terminologia **udaberri suabea** da. Hemen aztertu dudana elementua temperatura izan da, ohiko temperatura baino nabarmen altuagoa izan ez denean beteko litzateke hau.

Jarraian iragarpen bakoitza aztertuko dut:

- 2004ko udako tenporen iragarpenak zioen **sanoa eta bero handirik gabekoa** izango zela. Konprobatzeko 2004ko udako batz bestekoen hezetasuna eta temperatura konparatuko ditut serie osoko²⁵ datuekin.

Taula 2: 2004ko eta 2001-2014 serieko batz besteko datuak.

	Aldagaia	Negua	Udaberria	Uda	Udazkena
2004	P(l/m ²)	418,1	192	180,6	428,6
2001-2014	P(l/m ²)	387,9	263	152,9	404,1
2004	T(°C)	6,8	13,5	18,3	10
2001-2014	T(°C)	8,1	14,4	18,8	11,1
2004	H(%)	83	79	79	84
2001-2014	H(%)	82	80	82	83


Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

Hezetasunari dagokionez, 2004ko udan % 79ko hezetasuna egon zen, serieko batz bestekoa % 82koa denean. Alde horretatik uda sanoa izango zela asmatu zuten tenporek, hezetasuna ohikoa baino baxuagoa izan zelako eta ondorioz eramangarria. Bestalde udako tenperaturetan erreparatuz, 2004ko udan 18,3°C-

²⁵ Serie osoko datuak 2001 eta 2014 urte bitartean bildutako datuen batz bestekoak dira. Datu hauek ez dira estazio meteorologiko bakar batenak, baizik eta estazio guztien batz bestekoak.


ko bataz bestekoa izan zen eta seriekoan 18,8°C-koa. Hortaz, tenporek hemen ere asmatu dute, 2004ko udan egin zuen bataz besteko tenperatura serie osokoa baino baxuagoa izan baitzen.

Irudia 2: EAEko 2004ko udako hezetasun (%) mapa.



Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

Irudia 3: EAEko 2004ko udako tenperatura (°C) mapa.



Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

- 2004ko udazkeneko tenporek eguraldi ona eta euri gutxikoa izango zela zioten. Eguraldi ona egin zuen zehazteko, ditudan faktore meteorologikoak ez dira nahikoa eta hau, beraz, baztertu egin dut. Euri gutxikoa izan zen ala ez ikuskatzeko, aldiz, prezipitazioari erreparatu beharko diot.


Taula 3: 2004ko eta 2001-2014 serieko bataz besteko datuak.

	Aldagaia	Negua	Udaberria	Uda	Udazkena
2004	P(l/m ²)	418,1	192	180,6	428,6
2001-2014	P(l/m ²)	387,9	263	152,9	404,1
2004	T(°C)	6,8	13,5	18,3	10
2001-2014	T(°C)	8,1	14,4	18,8	11,1
2004	H(%)	83	79	79	84
2001-2014	H(%)	82	80	82	83

Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

2004ko udazkenean Euskal Autonomi Erkidegoko estazio meteorologikoetan batz best 428,6 l/m² prezipitatu zituen. Urte serie osoan aldiz, batz best prezipitatz duena 404,1 l/m² dira. Hortaz, tenporen iragarpena okerra izan zen, euri gutxikoa izango zela ziotelako eta ohikoa baino gehiago egin baitzuen.

Irudia 4: EAEko 2004ko udazkeneko prezipitazio (l/m²) mapa.



Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

- 2005eko udako tenporek bero gutxikoa eta prezipitazio urrikoa izango zela aipatu zuten. Horretarako udako tenperatura eta prezipitazioen taulak erabili beharko ditut.


Taula 4: 2005eko eta 2001-2014 serieko bataz besteko datuak.

	Aldagaia	Negua	Udaberria	Uda	Udazkena
2005	P(l/m²)	322,4	279,3	164,8	505,1
2001-2014	P(l/m²)	387,9	263	152,9	404,1
2005	T(°C)	5,9	14,8	17,9	9,4
2001-2014	T(°C)	8,1	14,4	18,8	11,1
2005	H(%)	79	77	78	82
2001-2014	H(%)	82	80	82	83

Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.


2005eko udako tenperatura 17,9 °C da eta seriekoa 18,8 °C-takoa. Bero gutxikoa izango zela esan dezakegu asmatu zutela, ia gradu bat gutxiagoko bataz bestekoa baitago 2005 urtean. Prezipitazioari dagokionez, 2005eko udan 164,8 l/m² egin zituen eta seriekoa 152,9 l/m² dira. Beraz, prezipitazio urrikoa izango zela ez zuten asmatu, serieko bataz bestekoan baino euri gehiago egin baitzuen.

Irudia 5: EAEko 2005eko udako prezipitazio (l/m2) mapa.



Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

Irudia 6: EAEko 2005eko udako temperatura (°C) mapa.



Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

- 2006ko udako tenporek sanoa izango zela zioten, hasieran lehorra eta gero ekaitzak. Sanoa izan zen ala ez hezetasunaren bitartez ikusiko dut, eta hasieran lehorra eta gero ekaitza prezipitazioen arabera.


Taulara 5: 2006ko eta 2001-2014 serieko bataz besteko datuak.

	Aldagaia	Negua	Udaberria	Uda	Udazkena
2006	P(l/m²)	316,5	180,2	144,6	260,3
2001-2014	P(l/m²)	387,9	263	152,9	404,1
2006	T(°C)	6,8	14,6	19,2	11,7
2001-2014	T(°C)	8,1	14,4	18,8	11,1
2006	H(%)	79	77	78	82
2001-2014	H(%)	82	78	78	82

Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

Uda sanoa izan zen ala ez frogatzeko 2006ko bataz besteko hezetasunari begiratuko diot, kasu honetan %78koa. Serieko bataz besteko hezetasuna %82koa da eta ondorioz esan dezaket uda sanoa izan zenaren aurreikuspena egokia dela, udako hezetasuna seriekoa baino baxuagoa baita. Prezipitazioetan begiratuta 2006ko udan 144,6 l/m² izan ziren eta seriekoak 152,9 l/m². Hau horrela izanda, iragarpenak asmatu zutela esan dezaket bietan egindako euria antzekoa da baita, eta beraz, ohiko urtaro bat izan genuela esan daiteke.

Irudia 7: EAEko 2006ko udako hezetasun (%) mapa.



Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

- 2007ko udako tenporek zioten hasieran ekaitz batzuk egonen zirela eta orokorrean sanao izango zela. Ekaitza frogatzeko ikusi beharko da zenbat prezipitatu zuen udan, bataz bestekoarekin bat etorritik gero aurreikuspena egokia izanik. Sanao izan den jakiteko hezetasunari erreparatuko diot.


Taula 6: 2007ko eta 2001-2014 serieko bataz besteko datuak.

	Aldagaia	Negua	Udaberria	Uda	Udazkena
2007	P(l/m²)	509,9	264,8	266,1	246,5
2001-2014	P(l/m²)	387,9	263	152,9	404,1
2007	T(°C)	8,2	14,2	17,2	8,8
2001-2014	T(°C)	8,1	14,4	18,8	11,1
2007	H(%)	79	77	78	82
2001-2014	H(%)	82	83	81	86

Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

2007 urteko udan 266,1 l/m² bota zituen euritan eta serieko bataz bestekoa 152,9 l/m²koa da. Datu hauek ikusita ekaitzak egon zirela nabaria da, 2007ko prezipitazioak seriekoa erraz gehitzen baitu. Hezetasunari dagokionez, %81eko hezetasuna izan zuen udan eta seriekoa %82koa denez azpitik agertzen da, beraz, sanao izanik uda alderdi horretan. Tenporek asmatu zuten.

Irudia 8: EAEko 2007ko udako hezetasun (%) mapa.



Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

- 2008ko udako tenporek tenperatura suabea eta euritsua izango zela esan zuten. Tenperatura suabea izan zen jakiteko tenperaturari begiratuko diot eta euritsua izan zen jakiteko prezipitazioari.

Taulara 7: 2008ko eta 2001-2014 serieko batz besteko datuak.


	Aldagaia	Negua	Udaberria	Uda	Udazkena
2008	P(l/m ²)	330,7	427,5	104	603,7
2001-2014	P(l/m ²)	387,9	263	152,9	404,1
2008	T(°C)	8,6	13,7	17,4	8,9
2001-2014	T(°C)	8,1	14,4	18,8	11,1
2008	H(%)	82	83	81	87
2001-2014	H(%)	82	83	81	86

Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

2008ko batz besteko tenperatura 17,4 °C izan zen eta seriekoa 18,8 °C da. Beraz, tenporek zioten tenperatura suabeak izango zirela betetzen da, urteko batz bestekoa seriekoaren azpitik agertzen baita. Bestalde, prezipitazioan

oinarrirituz, 2007an 104 l/m² ko bota zituen eta serieko batatz bestekoa 152,9 l/m² koa da. Hortaz, kasu honetan tenporek zioten euritsua izango zela, baina ez da horrela seriekoan baina dezentegutxiago prezipitatu baitzuen, 50 l/m² gutxiago gutxi gorabehera.

Irudia 9: EAEko 2008ko udako prezipitazio (l/m²) mapa.



Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

- 2011ko neguko tenporek euritsuak izango zirela ondorioztatu zuten. Neguko tenporak direnez, konparaketa egiteko 2012ko neguko tenporen taula erabili beharko dut. Honen zergatia 2011ko neguko tenporek 2012ko urtarril, otsail eta martxoko eguraldia iragartzen dutelako da. Euritsuak izan ziren jakiteko 2012ko neguko prezipitazioak serieko neguko prezipitazioarekin alderatu beharko dira.


Taula 8: 2012ko eta 2001-2014 serieko bataz besteko datuak.

	Aldagaia	Negua	Udaberria	Uda	Udazkena
2012	P(l/m²)	233,3	306	107,8	418,6
2001-2014	P(l/m²)	387,9	263	152,9	404,1
2012	T(°C)	6,7	14	18,9	10,8
2001-2014	T(°C)	8,1	14,4	18,8	11,1
2012	H(%)	83	80	78	84
2001-2014	H(%)	82	83	81	86

Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

2012ko neguko prezipitazioa 233,3 l/m² izan ziren eta aldiz serieko prezipitazioak 387,9 l/m² dira. Hortaz, tenporek ez zuten asmatu 2012ko neguko prezipitazioak ohikoak baino baxuagoak izan baitziren.

Irudia 10: EAEko 2012ko neguko prezipitazio (l/m²) mapa.



Iturria: Euskalmet eta elaborazio propioa.

